

Bidaiei buruzko DVD bilduma berriak jarri dituzte Barrikako liburutegian

Bi DVD bilduma berri jarri dituzte eskuragarri Barrikako udal liburutegian. Horiek munduko lekuri bitxi eta interesgarrienak hobeto ezagutzeko aukera ematen dute, bidaiak antolatze edota bidaiatzeko era desberdinak aurkeztuz. Lehenengoa 12 atalez osatutako ' Worldtrips ' bilduma da. Horretan munduari bira egiten diote pedal kolpez. Hugo Scanettik eta Worltrips-eko taldeak munduko naturarekin, kulturarekin eta geografiarekin duten harremana estutuko dute beren mendi bizikletekin, Europa, Asia eta Afrikako bideetan zehar. Ibilbideok bestelako bidai bat egin, bidai exotikoaz gozatu edo oroitzapen ahaztezina eduki nahi dutenen neurrira eginda daude. Bigarrena, ' Travel Living Discovery ', 29 sailetan banatuta dago. Hainbat herrialdeetako bidai bilduma da: AEB, Costa Rica, Norvegiako fiordoak, Italia... bidai izugarriak eta bikotean egiteko bidaiak, besteak beste. Argazkian, bilduma horiek Norvegiako fiordoak ezagutzeko aukera ematen dute / cc-by Daikrieg.